



# UDA GURE ARTEAN IGARO AHAL IZATEKO

Haur sahararrak udan etxean hartzeko kanpaina martxan jarri dute; familia hartzaileak behar dira 3

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2008-05-23**

VIURTEA 1.441.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Artikoaren bihotzera bidiaia, Amalur jardunaldien bitartez

**TOLOSA** Tolosako Ekinbide Etxeak antolaturiko ekimena hilaren 27tik 30ra garatuko da Kultur Etxean

**HELBURUA** «Eremu ezezagun honetara hurbildu» nahi dute jendea, antropologia, natura eta bidiaia ardatz izanik 7



Ezker-eskuin: Iurre Peñagarikako, Kike Armendariz, Ana Arretxe eta Iñaki Almandoz, atzoko aurkezpenean. ESTIEZEIZA



Zizurkilgo auzoko lanetan 658.307 euro inbertitu ditu Udalak. N. URBIZU

## Pagamuñoko igogailua inauguratu dute.

## Alurrek Dantza eta Mutxikoaren Eguna antolatu du

**IBARRA** Maiatzaren 31n, larunbata, 350 dantzari inguru bilduko ditu jaiak Ibarren; taldetik «guraso eta herritarrei parte hartzeko» deia egun diete 6

## 'Ezker-eskuma' antzezlan ikusgai izango da gaur, Gurea aretoan

**VILLABONA** Aitzpea Goenaga eta Ane Gabarainen zuzendaritzapean, 22:00etan hasiko da 3

**DISEINU GRAFIKO eta sormenean  
oinarritutako heziketa**

**Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zirkulak**



**ceinpro**

**TITULAZIO OFIZIALAK**

Nazioarteko lehiaketak  
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .  
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

[www.ceinpro.es](http://www.ceinpro.es)  
**INFORMAZIOA 943 310 873**

Herriz Pasalekua 98 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 510 876

## Z Zurea da hitza info

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

### Zorionak txapin festan parte hartu zuten guztiei!

Ehunka gaztek parte hartu zuten larunbatean Tolosan lehen aldiz antolatu zen Txapin festan. Goizean goizetik hainbat lokaletako gazte bildu ziren kalejira poteoan; gazte bazkarian berriz, 150 lagunetik gorak parte hartu zuten, Abastos plaza txiki ere geratu zitzaigun ia-ia. Arratsaldean giro ezin hobea sortu zen herri jolasetan, argazkian ikusi daitekeen bezala, eta gaueko tartea herriko musika taldeek bete zuten. Zorionak eman nahi dizkiegu antolaketa lanetan aritu diren gazte guztiei, baita egunean zehar parte hartu zuten guztiei ere. Egunean hizpide nagusia izan zen, honek ezin duela larunbatekoan geratu, ezta gutxiagorik ere! Zorionak gazte tolosarre!



### Non aparkatu behar dut nire bizikleta?

Aranburu jauregiaren kanpoaldean dagoen bizikletak uzteko aparkalekutxo topetaraino dago (Argazkia ateratzen nion ikus-teko nola egoten den). Askotan gertatu izan da, gainera. Hau ikusita, konponbide bat eskat nahi diot dagokionari. Ez da posible hau horrela azaltzea, bizikletaren erabilpena bultzatu nahi dute baina gero ez dituzte baliabideak jartzten.

Tolosar bat.



aurre Gipuzkoako ordezkari bezala.

Zorionak eta Euskal Herriko Txapela ere etor dadila Tolosara.  
**Laskorain eta Orixe.**

### XIV Orduen inguruan

Aurten egin dut lehenengo aldiz XIV orduko mendi martxa. Badakit inoiz ezin dela jakin baina uste dut azkenekoa ere izango dela. Ez zaizkit gauza dezente gustatu. Batetik, eta uste dut urteroko kontua dela, jendearen errotua. Mendi martxa neurtu bat bada, nola da posible jende asko eta asko ordutegiaren aurretik joatea? Eta aurretik esaten dudanean, oso aurretik esan nahi dut. Ez zait batere ondo iruditzen ez hain azkar dijoaztenen partetik ezta antolatzaileen partetik. Orain diote hausnarketa bat egin behar dutela. Azkar dijoaztenek baldintzatu behar al dute gainontzekoen martxa? Debekatu dezatela horrelako jendeak parte hartzea. Bestela, esan behar det antolaketa aldetik guztia oso ondo egin zutela.

Hori antolatzaileen partetik eta korrika ibiltzen diren horiei... ba betikoa. Hau ez dela horretarako martxa. Korrika egiteko martxa pila bat daude eta ez hau...

Emakumeen kopurua igo egin omen da. Hori on iruditzen zait, gero eta gehiago animatzen gara horrelako ekimenetan parte hartzerko.

Pertsonalki ibilbidean errepide gehiegi dagoela iruditu zitzaidan, edo berdina dena, mendi gutxiegi... Agian hau zailagoa izango da aldatzeko baina gustura egingo nuke mendi gehiago eta errepide gutxiago...

**Naiara (Tolosa).**

### Urkizuko monolitoa horiz eta gorri margotu dute

Urkizun dagoen Mikel Lopetegi etakide zenaren omenezko monolitoa gisa honetara azaldu da aste honetan, Espainiako banderaren koloreez margotuta. Joan den asteburuan gertatu zen hau. Urkizuko bizilagunek salatu egin nahi izan dugu familiarekiko errespetu falta iruditzen zai-gulako.

**Urkizutar bat**

### Tolosarrak nagusi eskola kiroleko areto futbollean

Pasa den larunbatean, hilaren 17an, Azpeitiko kiroldegian jokatuta ziren Gipuzkoako eskola kiroleko areto futbolako finalak. Infantil nesken mailan finalera iritsitako bi taldeak Tolosakoak izan ziren: Laskorain eta Orixe, hain zuzen ee. Oso partida lehiatua izan zen eta azkenean Laskoraingo neskek, Jon Telleriak zuzenduta, 5 eta 4 garaitu zitzaizkien Orixe koei. Orain, Laskoraingoek Euskal Herriko txapelketari egin beharko diote

## Bakarrizketak eta kontraesanak



### » Kale kantoitik

Joxemi Saizar

Lan istripuen prebentzioarako ingeniari bat hil da aurreko astean Alegian. Lan istripuz. Errealitateak fikzioa gainditzen du. Nire lagun batek behintzat hala dio. Edo bultzaren kontraesanak, aurreko batean nioen bezala. Kasu honetan behintzat bai. Aurrekariak badira, eta ez makalak: Usabal igerilekua inundatzea inauguratu eta berehalaxe, Lizartako ur enpresa bat erretzea, eta su hartu zuten Villabonako enpresa batek metxeroak oparitzea, aste honetan jakin dudanez.

Tolosan langabeziarik ez dagoela irakurtzen, barrezka hasi zen egunero Goierriara lanera joaten den laguna. Zenbat gaztek joan behar izaten dute egunero lanera Tolosaldeko Goierriara? Gustura jakingo nuke datu hori. Hori al da paperfabriken itxieren alternatiba? Europako hirien mailan gaudela esatean, lotarako hiria bihurtzen ari garela esan nahi al da?

Asteburua joan zen ondo antolatutako bi ekitaldi jendetsurekin: Gorrotxategiren omenaldia eta XIV Orduko Martxa. Lehena, hunkigarria omenaldia eta ingurukoentzat (oso gomendagarria bere argazki erakusketa). Bigarrena, festa partaieontzat eta ikusleentzat. Irurako Kilometroaren aurrerapena zirudien.

Bakarrizketak entzuteko aukera izango dugu asteburu honetan, kultur departamenduaren ekimen berri bati esker. Zorte on eta bizitza luze opa diot. Aldi berean, elkarrizketak izateko aukera eskainiko dute Anoetako jaiek. Uda parteko denboraldi luzearen txupinazoa izango da.

### @ Irudietan, bideoak, begiradak...

HITZAren webgunean hamaika aukera eskaintzen ditu, guztientzat. Ekitaldi bati buruzko bideoak, argazkiak... ikusteko aukera duzu, besteak beste. Esaterako, 'Irudietan' sailean pasa den asteburuan izandako XIV Orduen ibilaldiaren argazki ugari topa ditzakezu. Sar zaitze eta ikus itzazu ekitaldiari buruzko irudi ederrenak, baita beste atal batzuk ere.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## ALVARO MATXINBARRENA

SEMENURRIA PURA SANGRE PURE BLOOD

Erakutsita  
Kokle Mitselena Kulturara  
Gaztara Ateroa, 3. Ateroa

2008ko apirilaren 23tik ekainaren 14ra



Organizatzailea: Tolosa Kulturalegia  
Espainiako Herriko Erakundeak

# Haur sahararrak udan etxean hartzeko kanpaina abiarazi dute

**Elkartasuna** » Uztaila eta abuzturako da; ekainaren hasiera baino lehen eman beharko da izena; familia hartzaileak behar dira.

## INIGO TERRADILLOS

Urtero bezala abian da Tolosaldea Sahararekin elkarrekin eskualdeko hainbat Udalen laguntzarekin antolatutako *Oporrak bakean* proiektua. Ekimen honi esker, udan, hau da, uztailean eta abuztuan, eskualdeko herritarrek haur sahararrak etxean hartzeko aukera izango dute.

Proiektu honetan parte hartzen duten udalek bidai gastuak ordaindu eta pertsona bat kontratatzen dute koordinazio lanak egiteko, azterketa medikoetan eta gaztetxoak hartzen dituzten familiakoekin harremanetan egoteko, sor daitezkeen gaiei erantzuteko. Bestalde, Saharako begirale bat ere izango da. Baina, Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek azaldu bezala, «ezinbestekoa, 7-12 urteko haur hauek hartzeko prest dauden familiak dira». Udalei dagokionez, Alegia (1), Anoeta (1), Ibarra (1-2), Leaburu-Txarama (2), Tolosa (10) eta Villabonakoa (2) dira haurrak hartzeko laguntza ematen dutenak.



Errefuxiatuen kanpamentuetako saharar neskatila bat. I.T.

### Nolako familiak behar dira?

Hartzaileak pertsona bakarrek, seme-alabekin edo seme-alabarik gabe edota jubilatuak izan daitezke. «Saharako herriari laguntzeko gogoia edukitzea da baldintza, beraz, haur bat etxean izan nahi duen edozeinen laguntza da beharrezkoa, izan ere, haur guztiek dute oporrak izateko eskubidea, eta horretarako guztien laguntza ezinbestekoa da», diote Sahararen aldeko elkartekoek.

Hala, esperientzia ahaztezin honetan parte hartu nahi dutenek ekainaren hasierara arte dute izena emateko aukera. Udaletako Gizarte Zerbitzuetako Departamentuekin jar daitezke harremanetan, edo bestela Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideekin, 645 710 789 (Ana) edo 696 014 786 (Elixabet).

Bestalde, elkarteko kideek erraztasunak eman nahi dizkie familia hartzaileei umea hartzerako orduan, eta esaterako, uztailerako

arazoak badituzte edo, ludoteka zerbitzuaren bidez moldatzea posible dela ere azaldu dute.

### Zein da ekimenaren helburua?

Haur hauek etxean hartuta, bi hilabete horietan Aljeriako Tinduf hiririaren ondoan dauden errefuxiatuen kanpalekuetako errealitate gordina ahazteko aukera daukate; hala, esaterako, desertuko tenperatura altuetatik — 50 gradu baino gehiagora iritsi daiteke udan — eta begi, hortz, eztarri eta belarrietan horrenbeste kalte egiten dieten are ekaitzetatik ateratzea lortzen dute.

Horretaz gain, osasun arazoak detektatzeko edo sendatzeko azterketa medikoak egiten dizkiete haurrei hon iristen direnean, eta izan ditzaketen nutrizio akatsei aurre egiteko ere balio izaten du ekimen honek.

### Sentsibilizazioa bultzatzea

Haur hauek udagure artean igarotzearekin, beraz, desertuko egoera latzetik irten eta izan ditzaketen osasun arazoak konpontzen dira, baina horretaz gain, gurea eta euren herriaren arteko kultur harremanak mantentzea eta sakontzea lortzen da. Izan ere, haurrak etxean edukitzean esperientzia berria bizitzeaz gain, familien artean harremana sortzen da, beraien bene-

## » DATUAK

■ **Proiektua.** Oporrak Bakean du izena, eta haur sahararrek eskualdeko herritarren etxeetan uda igarotzea da asmoa.

■ **Helburua.** Desertuko baldintza gogorrek ekiditea bi hilabetez, eta baldin badituzte osasun arazoak konpontzea. Azken batean, haurrari eta familiari laguntza ematea.

■ **Izen-ematea.** Udaletako gizarte zerbitzuetan nahiz Tolosaldea Sahararekin elkarrekin (645 710 789, 696 014 786), ekainaren hasierara arte. Udalak ordaintzen ditu bidai gastuak eta azterketa medikoak egiten dizkie haurrei eta begiraleak jartzen ditu. Eguneroko gastuak baino ez dituzte hartzaileek ordaindu behar.

tako egoera ezagutu eta ulertzeko aukera izaten delarik. Gainera, haurraren familia bisitatzeko aukera ere izaten da urtean zehar errefuxiatuen kanpalekuetara antolatzen diren bi bidaietan, eta modu horretan, errealitatea berati bertararikusteko aukera izaten da.

### Erbestean bizi den herria

Sahararrak 1975. urtetik erbestean bizi dira, oso bizi-baldintza gogorretan. 200.000 lagun inguru bizi dira gaur egun errefuxiatuen kanpalekuetan. Geroz etalaguntza gutxiago iristen zaizkie, eta beraz, lehen mailako beharrak asetzeko geroz eta zailtasun handiagoak dituzte. Ekimen honetan parte hartuz egoera hori zertxobait aldatu dadin bultzatzen da ematea lortzen da.

## 'Ezker-eskuma' antzezlanak izango da gaur ikusgai, Gurean

**Villabona** » 22:00etan hasiko da ikuskizuna; Aitzpea Goenaga eta Ane Gabarain dira lanaren zuzendariak.

### ERREDAKZIOA

Glu glu taldearen *Ezker-eskuma* antzezlanak izango da gaur, Gurea antzokian ikusgai, 22:00etan. Aitzpea Goenagak idatzi du testua, eta Ane Gabarainekin batera zuzentzen du. Loli Astoreka eta Iñake Irastorza dira antzezlaneko aktoreak.

*Ezker-eskuma* antzerki labur bat da, emakumeen historiak kontatzen dituen antzezlanak, beren bakardadeak eta adiskidetasuna. Bi emakume Rosa eta Sara, dira protagonistak, bakoitza bere etxean bizi da, bere munduan, eta beren egunerokotasunak dituen arazoekin borrokan. Kontu bakar batek elkartzen ditu, alegia, biak solairu berdinean bizi direla, ezker-eskuma.



## Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren finala, gaur

**Aduna** » Lau talderen antzezlanak ikusteko aukera izango da, 22:30etik aurrera; Sabur-en musika ere izango da entzungai.

### ERREDAKZIOA

Asvineneak Ardilatxaren laguntzaz antolaturiko 2. Poltsikoko Antzerkikoko Lehiaketa amaierara iristear da, gaur, izango baita finala. Hain zuzen ere 22:30ean hasiko da lehiaketaren azken saioa.

Guztira lau saio ikusteko aukera izango da, eta hauek 8 eta 15 minutu artekoak izango dira. Hauek dira finalera iritsi diren lau parte hartzaileak: Hernanikoa taldea *La motxila* lanarekin; Suyanema taldea *Orden Cotidiano* lanarekin; Bazen behin clown taldea *Esta si que si* lanarekin; eta Escapada en solitario taldea *Enlaine* lanarekin.

Bestalde, lau talde hauek antzezlanak ikusteaz gain, musikaz gozatzeko aukera ere izango da gaur Asvinenean, izan ere, Sabur musika taldea gonbidatu dute.

## Iragarki laburrak

### LANA

- **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.
- **Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. 685 72 20 47 eta 635 71 24 41.
- **Zaindu eta etxeko lanak egin.** Bi ume zaindu eta etxeko lanak

egiteko emakumea behar da. 627 46 58 10.

### SALGAI

- **Garajea.** Alegiko kalen, 25 m<sup>2</sup>-ko garaje itxia. Gainean entreplanta dauka. Deitu 606 80 22 14 zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ibilbidea egitearekin batera argazkiak ateratzeko indarra izan zuten batzuek; beste batzuk, berriz, ikusle moduan aritu ziren. Guztiak bildu nahi izan ditu HITZak, zuen parte-hartzeari esker.

# Ibiltarien oroimenerako

## ERREDAKZIOA

**E**z zen erraza 14 orduz atse-  
denik gabe oinez ibiltzea.  
Baina izerdiaren etanekear-  
ren gaitetik, ibilbidean zehar ar-  
gazkiak ateratzeko indarra izan  
zuenik ere izan zen pasa den igan-  
dean ospatu zen XIV Orduko  
mendi ibilaldian. Hala, argazki  
ederrak heldu dira HITZAra,  
egun hori ahaztezina egin nahi  
izan dutenek bidalita.

Argazkia bidali dutenek azaldu  
duten bezala, «ibilbidearen zati as-  
kotan argazki kamara ahaztu egi-  
ten da, helmuga duzu buruan, bes-  
terik ez».

Agian horrexegatik anoagunee-

tan ateratako argazkia dira jaso di-  
tugun gehientsuenak.

Testua testua testua testua tes-  
tua testua testua testua.

### Argazki onena, Aitziber Lopezena

HITZAren epaimahaiak jasotako  
argazki guztien artean aukeraketa  
egin du eta Aitziber Lopezenak bi-  
dalitakoa irabazi du gure lehiake-  
tatxoa.

Argazkiarekin batera hauxe  
azaldu digu: «Une horretan bazi-  
rudien euria egingo zuela zerua  
oso ilun zegoen eta argazki kamara  
gainean nuela gogoratu nintzen  
orduntxe».



Minen jaitsiera mendizaleentzat gogorra izan zen baina ibilbidearen parajerik ederrena izan zen. JUAN JAUREGI INSAUSTI



Minak jaisten ari ziren mendizaleak. XABIER JAUREGI




Igaratza igaro eta Minetarako bidean, argazki ederra. AITZIBER LOPEZ



Igarantzara jende ugari hurbildu zen ikusle bazala. NAIARA ORTIZ



Amezketara ikusle moduan joan zen Amaia. AMAIA ARTOLA



Edozein ikuspegi zen ederra argazkiak ateratzeko. NEREA OLANO

txokoa  
**h**


## 2 sarrera pare

**Tolosako  
Leidorren**

irabazleak:

- Antton Gabillanes (Irura)
- Xanti Saizar (Tolosa)

Ostirala, martxoak 23 ◦ 20:30ean



HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.

# Pagamuñoko igogailua erabilgarria da dagoeneko

**Zizurkil** » 658.307 euro inbertitu du Udalak; «auzoko irisgarritasun arazoak konpontzeko» balio du inbertsioak.

## ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak Pagamuñoko auzo berritua inauguratu dute dagoeneko. Horretarako, Udalak 658.307 euro inbertitu ditu lan hauetan, eta 300.000 euroko ekarpena lortu du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eginko kudeaketan ondorioz; honela, obra hau gauzatzea ahalbidetu dute.

Zizurkilarrak Pagamuñoko auzo berriaz gozatzeko aukera izango dute, «erabat birmoldatua izan baita bere instalakuntzak modernizatu eta bizilagunen behar berrietara egokitzeko helburuarekin», Udalak adierazi bezala.

Honen bitartez, trafikoa berrantolatzea, hainbat gune oinezkoentzako eratzeta, eta traba arkitektonikoak ezabatzeko igogailu bat jarzeta dira, besteak beste, 3.980 metro kuadroko azaleran egin asmo diren hobekuntzak. Auzoaren behe alde eta ikastetxeen gunea lotzen dituen oinezkoentzako bidea egitea izan da jarduketaren ardatza. Azpiegitura berri honek eremuko eraikinetan bizi direnen irisbidea hobetzen du.

## «Irisgarritasun arazoetarako»

Besteak beste, igogailu bat instalatu dute «mugikortasuna hobetze aldera, auzoaren goiko aldeko eta beheko aldeko irisgarritasun ara-



Igogailua mugikortasuna hobetze aldera eraiki dute. N. URBIZU

zako konpontzeko, gune horretan mugikortasun urriko pertsonen ibilia eragozten duen aldapa saihesteko. Euren etxetatik ikastetxe edo ikastolarako joan-etorri hori egiten duten pertsona ugari izango dira, azpiegitura honen zerbitzua erabiliko dutenak». 07:30etik 22:00ak arte erabili ahal izango da igogailua.

Beste jarduketa batzuei esker, prestazio hobekuntza izaten dituzte aurrerantzean Pagamuñoko oinezkoek; izan ere, haur-jolasetara bideraturiko gune bat eratu da ikastola ondoko plazan, eta beste bat erreserbatu dute herriko bizi-

lagun gutzien gozamenarako. Zizurkilgo Udalak hesi bat ipini du arriskuak ekiditeko, eta gune horretan dagoen argiak indartu du bertako ikusmena areagotzeko.

Trafikoarekin lotuta, biribilgune bat eraikitzea jasotzen du aipatu jarduketak ibilgailuen trafikoa arautzeko eta abiadura handia ekiditeko. Honek, garajeetarako sarrideak errespetatzen ditu, eta oinezkoek dioetako lehentasuna ematen dituen guneak egokitzen ditu. Lehentasun hauek babesteko, trafikoko seinaleak eta oinezko pasabide goratuak jarri dituzte, besteen artean.

# Etzi, Asmube eta Gehitu abesbatzak Ikaztegietan

## ERREDAKZIOA

Etzi, Ikaztegiatiko elizan bi abesbatzen kontzertua izango da 12:00etan, mezaren ondoren. Asmube eta Gehitu abesbatzak entzun ahal izango dira. Egitarau anitzera prestatu dute bi abesbatzek; euskaldunak daude tartean, eta gozatzeko kantak entzun ahal izango dira.

Asmube elkarte (Beasaingo emakumeen elkarte) 1990ean sortu zuen emakumezko talde batek. Taldeak, elkargune baten beharra ikusi zuen bere prestakuntza osatzeko, gaitasunak lantzeko, eta aldi berean aisialdiko jarduerak eta jarduera lagungarriak ere burutu ahal izateko.

Helburu horiek betetzeko, urtean zehar ikastaroak egiten dira, hitzaldiak, kultur irteerak, erakusketak, beste elkarte batzuekin elkar-

lanak egiten dira, tratu txarren aurkako bilguneetan parte hartu... 2006an elkarteari abesbatza izateko garaia iritsi zitzaiola pentsatu zuten. Bazkideen artean deialdia egin ondoren jarri zen martxan. Zuzendaria Marisa Olanoda.

## Gehitu abesbatza

Gehitu abesbatza duela hiru urte jaiotzen eta Gehituko hainbat ki-dek sortu zuten. Helburu musikalak ez ezik, beste helburu batzuk ditu, besteak beste, Gehituko bazkideak beste bazkide batzuekin harremanetan jartzeta eta, batik bat, Gehituko bazkide ez diren beste hainbeste pertsonekin lan egitea komuneko proiektu artistiko batean. Horregatik, «koro hau ez da gay eta lesbianoek osatutakoa, bizitzako beste edozein arlotan bezala, denetarik dago».

# Gaur Udaberriko Mus Txapelketa Ibarren

## ASIER IMAZ

Ibarren Bai Euskal Herriari taldeak Udaberriko Mus Txapelketa antolatu du gaur Xepla elkartearekin, 22:00etan. Urtaro bakoitzean Mus Txapelketa bat egiteko asmoa ere azaldu dute, ekimena gaur bertan abian jarri.

Txapelketan parte hartu nahi dutenek Xeplan azaldu behar dute 22:00etan gaur. Bikoteko 15 euro

ordaindu behar da. Lehen hirurek sari «bikainak» jasoko dituztela jakinarazi dute. Halere, partaide guztiak sagardo botila bana jasoko dute izen-ematearekin batera.

Bikote txapelkunak arkumea eta bi ardo botila irabaziko ditu. Bigarren sailkatzen direnek, kilo bat txuleta eta ardo botila bertan eramanango dute. Hirugarrenentzat oilasko eta sagardo botila bana.

# Hitza Pilotako emaitzak

## N. URBIZU

Bihar V. Hitza Pilota Txapelketa-partidak 11:00etan hasiko dira senior mailan baina bikoteak baiezatzeko daude: bata zurruta da, Mendizabal-Telletea eta Intxausti-Atutxa, hain zuzen.

Herenegun iluntzean jubenilak Alegian eta seniorrak Beotibarren izan ziren, eta Alegiakoak azpimarratu dituzte: «Oso gogorrak izan ziren, eta ikusgarriak». Emaitzak, honakoak: Lizarribar-Albisu 18, Alberdi-Lertxundi 15; Olaetxea-Arzelus 17, Kortabarria-Arretxabaleta 18; Ezkurdia-Zubiria 18, Sukia-Aleman 16; Otamendi-Murgiondo 18, Bilbao-Esnaola 7.

Seniorretan, Errea-Baez I 12, Iraola-Lopetegi 22; Baez II-Landiribar 22, Larrañaga 8; Beitia-Senperena 11, Elurbe-Kantxo 22.

Benjaminen mailan, Berasategin, Sendikintza (Ibarren) talde-

ak tanto bat egin zuen Arruti-Astigarrairen kontra (16). Alegiak 18, Andazpek 8; Zazpi-Itturri 1, Elordi 18.

Alebinak Albizturren: Alegia 1, Erniope 16; Sendikintza 6, Añorga 16; Aurrera-Saiatz 5, Hernani 16;

Aurrera-Saiatz 8, Txaruta 16. Adun, infantilen mailan: Alegia 18, Añorga 5; Alegia 1, Bergara 18; Zazpi-Itturri 18, Bergara 1.

Azkenik, kadeteenak Bidanian: Labaka 3, Jauregi 18; Iribarren 18, Maiza 17; Urrutia 10, Juanenea 18.

**EUSKAL HERRIAN ZEHAR MENDI IRTEERA** **Maiatzak 25 Igandea**

Lizarruzti-Larraitz Aralar

08:00etan Ibarrenko plazan geratuko gara.

**Oharra:** apuntatzeko, Denak eta Zubiaurre tabernetan

ANTOLATZALEAK: BAI EUSKAL HERRIARI eta HAITZETAN RAJU

Zinema euskaraz **berriekin**

**Maiatzaren 24an, larunbata**  
filma DVD formatuan

Zuzendaria ANGEL AMIGO

**DEABRU GUZTIEN URTEA**

1976ko uztailaren 23an desagertu zen Eduardo Moreno Bergaretxe "Pertur" ETA-ko kidea. Oraindik ez da gorripik agertu, ezta ikerketarik egin ere. Dokumental honek Pertur desagertu zen urtearen kontaketa egin eta hipotesi berri bat jarri du mahai gainean pasadizo iluna apur bat argitzeko. Honen arabera, zantzu asko daude Pertur Espainiako Poliziaren aginduz Italiako neofaxistek bahitu zutela pentsatzeko.

berria **+ 6,95€**

**Oharra:** Bileteak bukatu arteko eskaintza

# Dantza eta Mutxikoaren Eguna

**Ibarra** » Guraso eta herritarrei maiatzaren 31n «jaiarekin bat egiteko» deialdia luzatu diete Alurretik.

## ASIER IMAZ

Alurr dantza taldeak Dantza eta Mutxikoaren Eguna antolatu du Ibarren hilaren 31n. Bertan herri desberdinetako 350 dantzari elkartzea espero dutela antolatzaileek. Dantzariak gain ordea, Alurretik kideek guraso eta oro har herri-

tarrei egun horretan jaiarekin bat egiteko deialdia luzatu diete.

## Egunaren helburua

Antolatzaileen arabera ospakizun honen helburua «gure kultura, gure ohiturak eta tradizioak plazaratzea izango litzateke».

Ibarren iragana, oraina eta etorkizuna elkartuko dira beraz maiatzaren 31n, beti ere dantza ardatz bezala hartuta; «Euskal Herrian ditugun dantza ezberdinak ikusteko aukera paregabea, eta aldi berean, tradizioan oinarrituriko pausokin sortutako dantza berri batzuk

ere ikusteko aukera izango dugu bertan».

## Bihar ikastaro irekia

Alurretik kideek esan dutenez, ez da Dantza Eguna soilik ospatuko, Mutxikoaren Eguna ere izango da. «Horretarako, kurtsioan zehar Mutxiko dantzaren pausok ikasteko ikastaro ezberdinak antolatu ditugu. Festa honetan parte hartu nahi duten guztiarentzat, bihar 17:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 19:00etara ikastarok antolatu ditugu, Alurren lokal zaharrean».

## S Soka motzean

### «Irakurketarako afizioa banuen baina galdua daukat»

#### UNAI HERNAEZ, 'NANDO'

Artista

#### A. IMAZ

Badira artistak eta Artistak. Unai Hernaez (Ibarra, 1981) Artista horietako bat da.

#### Zein izan zen irakurri zenuen lehen nobela?

Stephen King-en *Animalien Hilerria*.

#### Zenbat urte zenituen?

9 edo 10. Anaiak horrelako liburu etarako afizioa zuten eta...

#### Zergatik aukeratu zenuen liburu hori?

Anaiak liburu horretaz hitz egiten entzun nituen eta esaten zutena interesgarria iruditu zitzaiten.

#### Zertaz doa liburua?

AE Betako familia bat herriz aldatu eta Mainen dagoen herririka batetara joaten da. Indiar tribu baten hilerria zahar bat dago eta kondairaren arabera, zure animaliak bertan lurperatuz gero berpiztu egiten dira. Familia honen katua hiltzen da, berpiztu egiten da eta semea ere hiltzen denean hara ematen dute.

#### Lehen irakurketatik gogoratzen duzu hori dena?

Ondoren ere irakurrita daukat baina bai, lehenengo irakurketatik gogoratzen naiz.

#### Stephen King-en liburu gehiago irakurri al zenituen garai haietan?

Bai. Garai haietan literatura fantastikoa gustatzen zitzaidan eta irakurri nituen, baina gaur egun afizio hori galdua daukat.



A. IMAZ



Haurrentzat aukera ugari egon zen atzokoan Anoetako Jaietan. A. IMAZ

## Anoetako Jaietan txikiak han eta hemen korrika

#### A. IMAZ

Anoetako jaiak ez dute etenik eta ekitaldiak bata bestearen atzetik ospatzen dira. Atzo haurrak izan ziren protagonista goizean, jolasak, pailazoak eta buruhandiak atzetik ibili baitzituzten.

Loatzo Musika Eskolaren kontzertua, kostila jatea eta trikitalariak ere ez ziren falta izan atzokoan. Horretaz gain, ezin ahaztu, Anoetako jaietan Irurako Kilometroen aldeko Taberna aurkitzen dela, bokadilo eta edariz gainezka.

#### Gaur bertsoak eta kontzertuak

Jaiak 11:00etan plazan hasiko da jubilatuaren arteko Toka Txapelketarekin. 16:30ean buruhandiak kalejira ibiliko dira txistularien laguntzaz. 18:00etan antzerkia egongo da plazan eta 19:00etan Play-Back-a. 22:30ean Amaia Agirre, Erika Lagoma, Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze bertsoan jarriko dituzte frontoian. 00:00etan Kokein, Rock'n Roll Ramirez eta Deskontrol taldearen kontzertua egongo da plazan.



Irurako Kilometroak laguntzeko taberna jarri dute jaietan. A. IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Tolosa (Bellatokia)

# Amalur jardunaldietan, Artikoa hurbilagotik ezagutzeko aukera

**Tolosa** » Hilaren 27an emango diete hasiera saioei; jopuntu gisa iparraldeko «lurralde ezazaguna» aukeratu dute.

## ESTI EZEIZA

Ekialdeko Afrika eta Nepal zeharkatu ondoren, Artikora zuzenduko dira aurten Tolosako Ekinbide Etxeak antolatutako Amalur jardunaldiak. Natura, bidaia eta antropologia ardatz dituen ekimen honi hilaren 27an emango diote hasiera, eta 30ean amaiera. Denera, hiru hitzaldi eta diaporama bat izango dira ikusgai Tolosako Kultur Etxean.

Atzo aurkeztu zuten egitasmoa Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, eta bertan izan ziren Iurre Peñagarikano, Udaleko Ingurumen Zinegotzia; Iñaki Almandoz Kutxako ordezkaria; Amalurko kide den Kike Armendariz, eta Ana Arretxe, Tolosako Ekinbide Etxeko zuzendaria.

«Artikoari buruz ditugun topikoekin hautsi eta biziraupena kultura bihurtu duten biztanleen lurraldeak» gehiago ezagutu eta arakatzeko aukera eskainiko dute datorren asteko jardunaldiek. Kike Zinkunegik onartu bezala, «Izugarritzko eremua da Artikoa, eta zaila da dena aztertzea». Horregatik, agertu zuen, beraien helburua dela inguru ezezagun horietara pixkabat hurbiltzea. Horregatik, arlo edo inguru ezberdinetan mugitzen diren, baina aldi berean, lurralde hau ongi ezagutzen duten hiru pertsona gonbidatu dituzte, Artikora tolosarrak gerturatzeko.

## Natura, bidaia eta antropologia ardatz hartuta

Hiru elementu hauek dira Amalur Jardunaldien oinarriak. Mundu zabalera begirako proiektu bat da, non beste paisaia, kultura eta jende batzuegana gerturatzeko aukera eskaintzen duen.

Jardunaldien sarrera gisa, Al-berto Iñurrategi mendizalearen diaporama eskainiko dute. Antolatzailen esanetan, Iñurrategik,



Aurkezpenen izan dira, ezker-eskuin: Iurre Peñagarikako, Kike Armendariz, Ana Arretxe eta Iñaki Almandoz. E. EZEIZA

film honekin, «orain arte egindakoarekin apurten du», kritikoa baita bidaia egiteko ereduarekin. Bidaiariarentzat hausnarketarako bide izan daiteke saio hau, bidaia egiteko eraz eta hauek jopuntu diren lurraldeetan izaten dituen eraginez hitz egiten baitu.

Hurrengo saioan Artikoko lurraldeak arakatuko ditu Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoa. Bi norabideko begirada eskainiko du. Historian zehar, Mendebaldeko gizarteak eta Artikoko gizataldeek elkar nola ikusi duten aztertzea delarik helburua. Izan ere, Artikoa ezaguna da iparraldeko pasabide gisa, eta honek eragina izan du bertako biztanleengan. Fernandez de Larrinoa epe luzez bizitu da mendi inguruetako jendearekin, eta ongi ezagutzen du mundu hau.

Amalur Jardunaldien hirugarren hitzaldia Ramon Larramedik eskainiko du. Bera abenturazale eta esploratzailea da. Hiru urte igarot zituen Artikoa, trineo eta kajakean zeharkatu zuelarik. Bestalde, lan zientifikoak ere egin ditu

## » EGITARAUA

### Maitzak 27, asteartea

■ **20:00etan.** Leidor aretoan Al-berto Iñurrategiren *Begiz begi; Miradas a camara* filma izango da ikusgai. Ondoren, eztabaidarako aukera ere izango da Iñurrategirekin.

### Maiatzak 28, asteazkena

■ **20:00etan.** Artikoko gizarte eta kultura natiboei begirada soziokulturala izeneko hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean, Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoa. Aurkezle lanak losu ltueta bidaiariak egingo ditu.

lurraldearen inguruan. Lehendabiziko aldiz duela 20 urte joan zen, Espainiako lehenengoa izan zelarik, hara bidaiatzen. Beraz, 20 urte daramatza poloetara bidaia eginez eta poloei lotuta dago bere bizitza eta lana. Aldaketa klimatikoaz eta gainerantz eman diren hitz egingo du berak osteguneko saioan.

Aurtengo jardunaldiei amaiera

### Maiatzak 29, osteguna

■ **20:00etan.** *Una vida en el Artico (Bizitza bat Artikoan)* izenburupean, hitzaldia eskainiko du Ramon Larramedid bidaiariak, Kultur Etxean. Aurkezlea Juanma Sotillos kazetaria izango da.

### Maiatzak 30, ostirala

■ **20:00etan.** *Viaje por los paisajes del sol de medianoche (Bidaia gauerdiko eguzkiko estatuetatik)* hitzaldia eskainiko du Cesar Barba editoreak. Saioa Kultur Etxean izango da eta Ander Izagirre kazetari eta bidaiariak aurkeztuko du.

emateko, Eskandinabiako lurralde izango dituzte hizpide. Honetarako, Cesar Barba editore eta kazetaria gonbidatu dute Amalurkoekin. Bidaia gida bat egingo du berak, «zein leku bisitatu behar diren eta zein bisitatu, proposatu». Cesar Barba da Espainian lurralde hari buruz egitarata eman den bidaia gidaren bildumarik osoenaren editorea.

## Laburrak

### Urkiolara irteera antolatu du Harizpe elkarteak

**TOLOSA** » Harizpe jubilatuen elkarteak txangoa antolatu du Urkiolako San Antoniora, ekainaren 13rako. 09:00etan irteerako dira San Frantziskotik eta Urkiolan egonaldia egin ostean Durangora joango dira bazkaltzera eta Tolosara heldu baino lehen Zarautzen egingo dute geldialdia. 27 euro ordaindu beharko da izen-ematea (ez bazkideek, berriz, 30).

### Oargirekin San Donato eta Urbasa ezagutzeko aukera

**TOLOSA** » Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du gazteentzat, datorren astebururako, maiatzaren 31 eta ekainaren 1ean, hain zuzen ere. Larunbatean irten eta Urbasara joango dira autobusez, han gaztea eta ikazkinen museoa ikusiko dute. Gaua berriz, alberge batean igaroko dute. Hurrengo egunean San Donatoa igoko dira, eta azkenik, autobusez, berriro etxera itzuliko dira. Informazio gehiago nahi duenak 637 83 03 80ra deituta eskura dezake.

### Eskolako haurrek 'Itsuak' antzerkia eskainiko dute

**ALBIZTUR** » Albizturko Udalak antolatutako Maiatza Kulturaren baitan eskolako haurren antzerkia izango da gaur arratsaldean. Ikasurtean zehar prestatu duten, *Itsuak* izeneko emanaldia eskainiko dute hemezortz haurrek. Saioa eskolan bertan izango da, eta 19:00etan hasiko da. Hurrengo egunean berriz, paella jatea izango da 14:00etan. Honen ostean, Indekiten musika taldearen emanaldia izango da plazan.

### Sendi Ekintzaren batzar berezia izango da gaur

**IBARRA** » Sendi Ekintza gurasoen elkarteak ezohikoa batzarra egingo du gaur, iluntzeko 20:00etatik aurrera. Bilera lokalean bertan egingo dute elkarteak eta bertan landuko duten gaia lokal berria hartzeko baldintzak azaltzea eta, posible bada, onartzea izango da. Ondoren, galdera-eskaeren txandak izango da.



## très Bonn.

Très Bonn hitz gutxitan Citroën C4 berria zer den azaltzeko modua da. Xehetasun txikiena ere ondo zaindutako dotoretasun eta teknologiaren arteko nahasketa da. Benetazko luxua denaren adierazpena: kalitatea guztiaren gainetik. Auto handia: ongi pentsatua, ongi egina... Frantziar izpirituaren onena benetako berrikuntzaren izaerari lotuta. Bi hitzetan: Très Bonn

**CITROËN C5 BERRIA. ALEMANIAR NORTASUNA. FRANTZIAR IZPIRITUA.**

**CITROËN C5 BERRIA**

ZATOZ IKUSTERA: **IROVI, S.A.**

Citroën Konzesionario Ofiziala  
Industrialdea z/g. • Anoeta / Tolosa  
Tel.: 943 65 18 42



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta/Idaia:** 687 410 022. anoeta/idaia@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza/Idaia:** 687 410 118. leitza/idaia@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Anoeta.** Jaiak: 11:00etan jubilatuen arteko toka txapelketa; 16:30ean buruhandi eta erraldioen kalejira; 18:00etan antzerki ikastaroa eta bertso eskolakoen emeraldia; 19:00etan play-back emeraldia; 22:30ean bertso saioa frontoian: Iker Zubeldia, Amaia Agirre,...

### Musika

■ **Tolosa.** Garrett Wall Band musika talde irlandarra Fronton kafetegiaren ariko da 23:30etik aurrera.

### Antzerkia

■ **Tolosa.** Bakarriketa zikloa Leidor aretoan 20:30ean: Rafael Alvarez *El brujok El Lazarillo de Tormes* antzezlan aurkeztuko du.

### Deialdiak

■ **Alegia.** IV. Kirol Astearen amaiera gisa, igandean Aizkorri mendi irteera egingo dute, plazatik 08:30ean abiatuta.

■ **Berastegi.** Maiatzaren 31n Gipuzkoaren eguna ospatuko da Lurdesen. Autobusa antolatuta da egun berean joan etorria egingo duena. Izen ematea, Marisa edo Maritxurekin harremanetan jarriaz, 943 683 364 edo 943 683 008 telefonoetan 18 eurotan.

■ **Tolosa.** Afari turkiarra Fronton jatetxean hilaren 28an 21:00etan. Gonbidatua: Omar Faruk Tekbilek. Sukru Karakusen margoak zozkatatu dituzte. Sabel dantza. Txartelak 35 eurotan eskura daitezke Fronton jatetxean eta Saikin eta Egoki tabernetan.

■ **Tolosa.** Uztailaren 6an egingo den Jubilatuen Festarako izen-ematea egin daiteke Harizpe eta Iturriza jubilatuen elkarteetan. 65 urte izan eta Tolosan bizi direnentzat da.

■ **Tolosa.** Urtero Txinparta elkarrekin antolatzen duen pintura erakusketarako izen-ematea egin daiteke elkartean bertan. Tolosaldeko artistek parte har dezakete, gehienek bi lan aurkeztuz.

■ **Zizurkil.** Xabier Lasak idatzitako *Begi kolpea* (Teodoro Hernandorenaren biografia) liburua aurkeztuko da Atxulondo kultur etxean 19:30ean.

### Irteerak

■ **Leaburu.** Arkupeak jubilatuen elkarteak uztailaren 9tik 17ra Puente Viesgora (Kantabria) irteera antolatuta du. Prezioa, 680 euro gela bikoitzean eta 790 gela indibidualean. Izen-ematea, 948 450878 telefono zenbakian 11:00etatik 12:00etara.

### Erakusketak

■ **Alegia.** Fernando Rojo tolosarren argazki erakusketak dago ikusgai Alegiako Jubilatuen tabernan, asteartetik igandera bitarte. Afrikako argazkiak dira.

■ **Tolosa.** *Gizon eta emakume homosexualak historian zehar* argazki erakusketak Kultur Etxean.

■ **Zizurkil.** El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen inguruko argazki erakusketak Atxulondo kultur etxean.

■ **Zizurkil.** Mugarik Gabeko Medikuen *Krisi ahaztuak. Bizitza ezizunak* argazki erakusketak Atxulondo eta Iriarte kultur etxean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 670128.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Aitor Ibarzabal Jauregi (Tolosa).** Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.

agurrak urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

# EUSKAL TONBOLA

Furgoneta bat nahi? Eta LCD telebistak? GPSak? JOKA EZAZU EUSKAL TONBOLA NI!

1€

Gipuzkoa osoko tabernetan salgai